



## **BADALAB Hizkuntza eta Gizarte Berrikuntzarako Laborategiak maiatzean irekiko ditu ateak Erreenterian**

*Euskararen Nazioarteko Egunaren atarian, hizkuntza berdintasuna indartzen jarraitzea helburu, “elkarlana, berrikuntza eta esperimentazioa” jorratzea ezinbestekotzat jo ditu Markel Olano diputatu nagusiak*

Badalab Hizkuntza eta Gizarte Berrikuntzarako Laborategiak datorren urteko maiatzean zabalduko ditu ateak Erreenteriako liburutegi zaharrea, gaur goizean Markel Olanok, Gipuzkoako diputatu nagusiak, jakitera eman duenez. Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren ondoren eskainitako prentsaurrekoan azaldu duenez, erreferentziazko zentro honek oinarrian izango duen partzuergoa uztailean osatu ostean, proiektua “aurrera pauso sendoak eta, batez ere, partekatuak” ematen ari da euskal erakunde publikoetako eta euskalgintza sozialeko ordezkariekin batera eta dagoeneko martxan jartzen ari da bere lehen lan leerroak.

“Orain arte egindakoak eta lortutakoak izugarritzko balioa du. Euskarak pauso sendoak eman ditu azken hamarkadetan. Erakunde publikoen eta euskalgintza sozialeko eragileen lanari esker, herritarren atxikimenduak bultzatuta, ezagutza mailak gora egin du eta eremu berriak irabazi ditu hizkuntzak. Baina, etorkizunera begiratzen badugu, aurrean dugun mundua sakonki eta bizkor aldatzen ari den honetan, lankidetzaren, berrikuntza eta esperimentaziorako gaitasuna biderkatu behar dugu”, azpimarratu du diputatu nagusiak, Euskararen Nazioarteko Egunean.

Olanok adierazi duenez, “lankidetzaren, berrikuntza eta esperimentazio” gaitasunean eragin nahi du Badalabek, eta geroan sortuko diren “agertoki eta interakzio sistemetan” euskara erabiliko dela bermatzea izango du helburu. “Mundu osoan zabaltzen ari diren teknologia, paradigma sozial eta ekonomiko berriek modu nabarmenean eragiten diete hizkuntza gutxituei eta txikiei, ez hegemonikoei. Euskara ez da salbuespena. Galdera ikur eta desafioen aurrean, hil ala bizikoa da jomuga berriak eta egitasmo berritzaileak urratzea”, gogoeta egin du. Horregatik, “nazioartean aitzindaria eta, gure ustez, bakarra” den esperientzia abiaraziko du Gipuzkoak, “hizkuntzen eta hiztunen arteko berdintasuna” lortu nahi duen edonorentzat “erreferentzia” izango den “esperimentazio gune segurua, ausardia babestuko duena”.

Euskararen biziberritze prozesuan berrikuntza eta esperimentazioaren aldagaiak txertatzea izango du xede eta, aldi berean, gizarte berrikuntza prozesuetan hizkuntzaren aldagaia kokatzea. Hala nola, euskararentzat aukera berriak identifikatu eta horietan eragiten saiatuko da, eta interakzio forma berriek eskatzen dituzten plaza eta kanal berriekin esperimentatuko du.

Bide horretan, Badalaben Gobernu Batzordeak joan den ostiralean izendatu zuen proiektua gidatuko duen zuzendaria. Hautapen prozesua garatu ondoren, Goiatz Oiartzabal Lakarra (Pasaia, 1983) aukeratu dute postu horretarako. Industria Diseinuan ingeniari teknikoa (MU) eta Barne Ekintzailatza eta Berrikuntzan nazioarteko masterra (MINN), gizarte berrikuntzan aditua da Oiartzabal. Fagor Taldean ekin zion bere ibilbide



profesionalari eta, ondoren, LEINN graduan *team coach* eta Debagoiena 2030 egitasmoan prozesu arduradun gisa jardun izan du, besteak beste. Laborategiaren lantaldea osatzeko, Gobernu Batzordeak bilera berean onartu zuen hurrengo asteetan zabalduko den beste bi pertsona –“berrikuntza eragile” profilekoak– hautatzeko deialdia.

Diputatu nagusiak nabarmendu duenez, Badalab “ez dator inor ordezkatzera”, hizkuntzaren, euskararen biziberritzean eta gizarte berrikuntzan “gauza positibo ugari gertatzen ari direlako”, bere iritziz. Aitzitik, ahalegin partekatu horretan bidelagun izango duen ekosistema “anitza eta zabala” sustatuko du, “gobernantza partekatua eta berritzailea” oinarri gisa hartuta. Izan ere, Etorkizuna Eraikiz egitasmoaren baitan dagoeneko hezurmamituko den bederatzigarren proiektu estrategikoa da Badalab –aurretik sortuak dira Ziur, 2deo, Labe, Adinberri, Mubil, Elkar Ekin Lanean, ArantzazuLab eta Naturklima–.

2016an hasitako deliberazio batean du sorburua, eta 2018tik aurrera egin da laborategiaren helburuen eta diseinuaren inguruko lanketa—lankidetzan aritu dira Aldundia bera, Langune, Elhuyar, Emun eta Soziolinguistika Klusterra—. Aurtengo uztailean eratu zen partzuergoa eta, aipatutako erakunde publiko eta eragile sozialez gain, Partzuergoko Gobernu Batzordean partaide dira Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza politikako saila, Erreneriako Udala, Euskalgintzaren Kontseilua, EITB, UPV/EHU, ArantzazuLAB eta Euskaltzaindia.

## **Badalaben egoitza, Erreneriako liburutegi zaharrea**

Joan den astean Diputatuen kontseiluak onartu zuen Erreneriako Udalarari 329.082,28 euroko dirulaguntza ematea, udal liburutegi zaharra gaitu eta egokitzeko lanak finantzatu asmoz. Izan ere, maiatzetik aurrera eraikin horretan kokatuko da Badalab Hizkuntza eta Gizarte Berrikuntzako Laborategia. Instalazio horietarako espazioa Erreneriako Udalak eskaini du eta obrak abenduan bertan hasiko dira.

Gutxi gorabehera 300 m<sup>2</sup>-ko espazioa izango da, eraikinak dituen lau solairuetatik bitan banatuta. Horretarako, aurretik eraikin horretan hainbat gaikuntza eta egokitzapen lan egin behar dira. Gauzatze proiektu horrek, guztira, 500.800 euroko gauzatze aurrekontua du, eta 329.000 euro Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoak erabiltzea aurreikusten den espazioari dagozkio. Lan horiek higiezinaren titularra den Erreneriako Udalak egingo ditu eta lanek irauten duten bitartean, Badalab-eko Partzuergoa udalerrri bereko Torrekua eraikinean kokatuko da behin-behinean, hori ere udalaren jabetzakoa. Zuzendariaren izendapenez gain, datozen hilabeteetan beste bi langile kontratatuzeko hautatze prozesuari ekingo zaio, hiru lagunez osatutako lantaldea osatu asmoz.

Donostia, 2021eko azaroak 30ean.